

DSOGUNEKO ERAKASKERA
1993-94.

ELHEKETA : ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA.

- 1 - Piarresek bazuna foxi bat-burutek?
- 2 - Zer zozotari egin zuen?
- 3 - Zertako bi emagotok uste zuten Paberat zeramatela?

GAIXO PIARRES! 2.

Eta Piarres, luze luzea xutiturik, bere galtzak eskuetan, ari da zafra eta zafra, Jara mendiko alderdira badaoala haren galtzetako erhauts guzia. Landa batean, arbi-jorrazale multzo bat hari eta haren galtzeri beha eman ziren, xarboak ur hegian bezala, ahoa xabal, xabala. Ontsa kexu ari zen Piarres! Bandera bat eskuan izan balu bezala, inharrosi zituen bere galtzak, eta uste dut, eskarnio batean, irri egin ere zioten arbi-jorraztaileeri!...

Bet betan, oh! oh!

Eskuatarik joaiterat utzirik edo ez dakit nola, haizeak hartzen diozka Piarresi bere galtzak, eta galtza hek bazoazin ai, han, airean, ezti ezti, aireplan edo tresna hetarik bat bezala. Eta Piarres, zozotua, gasna bezen zuriko begi batzuekin, bi eskuak aintzin halako orro itsusi bat zintzurretik zoakola, bi plegutan eman zen, leiho ezkinen.

Dolu minaren minez, ez zen gehiago bere buruaren jabe, eta doi doiak egin zuen ez baitzen bere galtzen ondotik leihotik kanpo hantxet abiatu hura ere...

Azkenean, nigarrez haur bat bezala, jarri zen edo hobeki erraiteko erori, egiazki erori zoko batean. Oi gure Jainkoa! Holakorik egundaino nork non ikusi du sekulan? Eta zer egin? Bai, zer egin!...

Eta treina, *fiu, fiu, fiu*, firurikan joan, bethi joan; huna Izpura Agerrea, huna Baigorritateko zubi burdinazkoa! Oh! Oh! ixtantean Ortzaize!...

-Ossès, Ossès, cinq minutes d'arrêt!...

Piarres, sukar bat begietan, xutik eman da berriz ere, leiren ondoan, eta erhotua egiazki orori ari da keinuka, muthileri, garako buruzagiari, Goitiño xaharrari, Irisarriko kurrierari, eta nik dakita oraino nori eta nori. Zer nahi luke bada heien guzieren ganik? Berak ere ongi othe daki?...

Azkenean, Irisarriko bi atxo pollit ohartzen zaizko eta ustez eta toki bat badaukan han, heientzat, beren kabañoak eskuan, irri batean heldu zaizko, zangoek ereman ahala laster...

Piarres ohartzen zaiote ordu berean, eta ukhamiloak bildurik, hasten zaiote mehatxuka, orroaz:

-Zoazte hemendik, atxo demuntreak, edo garbitzen zaituztet biak!

Eta eginen ere zituen naski hala hala... Beharrik, harriturik, urrundu ziren emazteki gaixoak, Paberat zeramatena erho zombait zitekela segur gizon izigarri hura...

III ADITZ IKASKUNTZA.

31. Zintzurretik zoakola 32. Badaukan

33. Paberat zeramatena 34. Zitekela

31. JOAN régime indirect Indic Imparfait

(Hura) joan = (Il) allait

Hura (lui) Zoakitan = il m' allait

Zoabizun = il vous allait

Zoakion = il lui allait

Zoabizun = il nous allait

Zoabizuen = il vous allait

Zoakien = il la allait

32. EDUKI = tenir. Indicatif Présent.

Hura = le, la

Nik daukat / m = je le tiens

Hik daukak / m = tu le tiens

Zuk daukazu = vous le tenez

Harek dauka = il le tient

Guk daukagu = nous le tenons

Zuek daukaguz = vous le tenez

Heiek daukate = ils le tiennent

33. Ereman. Conjugaison forte. Indicatif

Imparfait. Hura = le, la

Nik neraman = je l' emmenais

Hik neraman = tu l' emmenais

Zuk zineraman = vous l' emmeniez

Harek zeraman = il l' emmenait

Guk gineraman = nous l' emmenions

Zuek zineramatena = vous l' emmeniez

Heiek zeramatena = ils l' emmenaient